Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Dimas Ormaetxea

Eibar, Gipuzkoa



Aurkibidea

Biografia



Eibarko Kiñarra auzoko Iraegi baserrian jaioa, hantxe bizi izan da beti. Eibarko toponimia biltzeko lanean parte hartu zuen. Baserritarra eta artzaina.

Zintak

EIB-001

- **Proiektua**: Eibarko mendi-toponimia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2003-06-22
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Iraegi Erdikua baserrian jaioa

- **Erref**: EIB-001/001
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Iraegi Erdikua baserrian jaio zen Dimas. Alboko baserrietako bat erre egin zen. Zapata pare bat berreskuratu ziren bakarrik. 1914an jaio zen, Andra Mari Martikoren egunean. Kalean lan egiten zuten baina baserrian bizi.

2. Behiak izatetik ardiak izatera

- **Erref**: EIB-001/002
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:02:17. **Bukatu**: 00:02:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Garai batean behiak zituzten baserrian, gero ordea, ardiak.

3. Kiñarra bailararen aldaketa

- **Erref**: EIB-001/003
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:02:58. **Bukatu**: 00:04:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Flora
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Kiñarra bailara nola aldatu den. Garai batean baserri guztietan zeuden gari eta arto-soroak. Pinurik ez zegoen. Gaztainandoak, haritzak eta pagoak ziren nagusi.

4. Kiñarra bailarako bideak

- **Erref**: EIB-001/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:38. **Bukatu**: 00:05:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Kiñarra bailarako bideak urteetan zehar nola aldatu diren. Mando-bidea, astoarekin joateko. Egun batean baserritik kalera hainbat aldiz joaten ziren, beti oinez.

5. Kiñarra bailarako giroa; erromeriak

- **Erref**: EIB-001/005
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:05:48. **Bukatu**: 00:06:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Garai bateko jendea konformeago bizi zen. Baserri-giroa. Kantina Zaharra baserrian, erromeria izaten zen.

6. Azurtzako maisuak kantina ere bazuen

- **Erref**: EIB-001/006
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Azurtzara joaten zen eskolara eta maisuak kantina bat ere bazuen etxean. Karabiko zuloan txapa jarri eta barra jartzen zuen.

7. Azurtzako eskola

- **Erref**: EIB-001/007
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:08:25. **Bukatu**: 00:10:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Eskolan, irakurtzen eta matematikak ikasten zituzten. Eskola nolakoa zen. KIñarra bailarako batzuk Elgetara joaten ziren eskolara. Lagun bati, graduatu zenean erloju bat oparitu zioten.

8. Kantina Zaharreko erromeriak

- **Erref**: EIB-001/008
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:10:14. **Bukatu**: 00:12:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Azurtzan, Kantina Zaharrean, taberna eta erromeria egoten ziren. Hasieran ez, baina gero, ordaindu egin behar izaten zuten erromerian dantza egiteko. Igandetan izaten zen. Soinu-jotzaileak.

9. Tocayok sortu zuen Azurtzako kantina

- **Erref**: EIB-001/009
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:12:54. **Bukatu**: 00:14:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Azurtzako kantina Tocayok sortu zuen gerra aurretik. Ardoa eta berakatz-zopa egoten ziren.

10. Salbador egunean, meza entzun eta garia jotera

- **Erref**: EIB-001/010
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
San Salvador egunean meza egoten zen eta gero baserrira lanera bueltatzen ziren, garia jotzera.

11. Arima-saltoka Salbadorreko ermitan

- **Erref**: EIB-001/012
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:17:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Garizuma inguruan, Salbador ermitan arima-saltoka egiten zen. Eskutik hartzen ziren eta saltoka ibiltzen ziren.

12. Su-bedeinkatua ixuarekin banatzen

- **Erref**: EIB-001/013
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:17:09. **Bukatu**: 00:19:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Su-bedeinkatuarekin egiten zen erritu bat kontatzen du. Su-bedeinkatua eskutik-esku pasatzen zen ixuarekin. Gero beideinkatutako sua etxera eramaten zen.

13. Bolatokia Arrazolan; hiru-txirlora nola jolastu

- **Erref**: EIB-001/015
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:22:52. **Bukatu**: 00:24:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Arrazolako bolatokia famatua zen. Azurtzan ere bazegoen bat. Dimasek ere jolastu izan du bola-jokoan.

14. Hiru-txirlotan jolasten eta apostuak

- **Erref**: EIB-001/016
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:24:39. **Bukatu**: 00:27:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Hiru txirlotara jolasten dute. Nola jolasten den azaltzen du. Bola botatzeko modu ezberdinak daude. Apostu asko egiten ziren.

15. "Luzia" eta "Agerre", Txontako probalariak

- **Erref**: EIB-001/018
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:28:33. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Herri-probetan Txontako "Luzia" eta "Agerre" ibiltzen zen. Entrenatzen ikusten zituzten baserritik.

16. Kiñarra bailarako toponimia I

- **Erref**: EIB-001/020
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:32:26. **Bukatu**: 00:33:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Kiñarra bailarako mendiak, tontorrak eta basoak: San Andres, sorgin-baso...

17. Kiñarra bailarako bideen toponimia

- **Erref**: EIB-001/022
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:36:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Baserri inguruko baso eta zelaien izenak: Etxaburua, Egixa, Kaminburua... Bideen izenak eta norantzak.

18. Kiñarra bailarako toponimia I

- **Erref**: EIB-001/023
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:36:03. **Bukatu**: 00:37:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Tontorrak: Galdaramiño, Azkonabitza, Azurtzako etxaburua eta Arraotzko etxaburua...

19. Kiñarra bailara: "Mendi Laua" eta "Aingeru guarda"

- **Erref**: EIB-001/027
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:39:21. **Bukatu**: 00:41:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Topinburutik haratago "Mendi laua", "Aingeru guarda" tontorrak daude. Ilordo. Kurutze-gain.

20. Kiñarra bailarako mendi-tontorrak

- **Erref**: EIB-001/028
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:41:03. **Bukatu**: 00:42:30

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Irei baserritik eta mendebalderuntz dauden tontorrak aipatzen dituzte: Azurtza, Topinburu, Mendilau, Aingeru Guarda, Ilordo eta Irure. Denek muga egiten dute Eibarrekin.

21. Kiñarra bailarako mugarri zaharrenak

- **Erref**: EIB-001/029
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:42:30. **Bukatu**: 00:45:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:
Kiñarra bailarako mugarri zaharrenak XVII edo XVII. mendekoak dira. Haien kokapenaren azalpenak ematen dituzte.

22. Kiñarra bailara: Haitzbakar tontorra eta Aramatz erreka

- **Erref**: EIB-001/033
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:47:16. **Bukatu**: 00:48:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Haitzbakar tontorra. Aramatz erreka eta potzua.

23. Kiñarra bailara: Intxaurdieta basoa

- **Erref**: EIB-001/035
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:48:26. **Bukatu**: 00:50:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Intxaurdi edo Intxaurdieta basoaren kokapena. "Intxorretako zulua" deitzen diote.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com